



OFIS AR BREZHONEG Bretoieraren Hizkuntz Erakundea

Bretoieraren Hizkuntz Erakundearen helburu dira hizkuntzaren sustapen eta garapena gizartearen arlo denetan. Britainiako Lurralde Garapenak sortu zuen Hizkuntz Erakundea 1999ko maiatzean eta, oraintxe, lurraldeko hainbat elkarterekin batera ari da elkarlanean. Bretoiera hiztunen beharrei erantzuten ez ezik, bretoieraz ari nahi duten administrazio-erakunde, enpresa, elkarte eta abarren nahiak asetzeko ere sortua da Hizkuntz Erakundea.

Hainbat azpisail ageri dira Bulegoaren egituraren barruan:

- Bretoieraren Behatokia izenekoak, adibidez, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoaren azterketa du helburu, lehenik, era bateko zein besteko proposamenak egiteko, ondoren.
- Hizkuntz Ondarea izeneko sailak, berriz, toponimia, hizkuntz esamoldeak, hiztegi teknikoak eta gisakoak betiko galdu gabe irauraraztea du xede.
- Erakundearen baitan, bestalde, Itzulpengintza eta Aholkularitza Teknikoa eskaintzen duen zerbitzua eraturik dago, bai eta TermBret izeneko Terminologia Zentroa ere.
- Azkenik, Garapen Ajentzia ere bada, bretoiera biziberritzeko helburu duena. Ajentzia honek hizkuntzaren erabilera du lehentasun, sentsibilizazio kanpainak antolatuz, bideseinaleak egokituz eta abar.

Hizkuntz Erakundea esperantzagarri da, guztiz, bretoieraren goerari buruz, orain artean egin ez den urratsa baita. Carhaix eta Rennes-en ditu egoitzak. Harremanetarako e-posta helbideak: ofisk.bzh@wanadoo.fr (Carhaix-eko bulegoa) eta ofisr.bzh@wanadoo.fr (Rennes).

TOUTES DIRECTIONS
DA BEP LEC'H

Port de Pêche / Porzh-pesked

Port de Commerce
Porzh-kenwerzh

MENT-CENTRE
ORIENT-KREIZ-KER

de Plaisance
zh-bageal

Office de Tourisme
Ti an Douristed

Palais des Congrès
Palez ar Gouelioù

Chambre de Commerce
et d'Industrie (C.C.I.)
Kambr Kenwerzh
ha Greanterezh (K.K.G.)

Aéroport
Aerborzh

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 80 98

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

Euskara Biziberritzeko Plana diputazioetan

Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Diputazioek atxekimendu osoa agertu diote Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari. Kultura Sailburu Mari Karmen Garmendia eta Hizkuntza Politikarako Sailburuorde Josune Ariztondo, eta Aholku Batzordeko idazkari Xabier Aizpurua Gipuzkoako eta Bizkaiko ahaldu nagusiekin bildu izan dira, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bi lurraldeetako agintariei era ofizialean aurkeztuz.

Euskararen Plan Nagusia bultzatuko dutela adierazi dute bi diputazioek eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzarekin harreman iraunkorrak izango dituztela. Gipuzkoako Diputazioko Euskararen Normalizaziorako Departamenduko zuzendariak, Lore Leanizbarrutiak, eta Bizkaian egiteko bera duen Gotzon Loberak izango dute harreman horiek gauzatzeko ardura.

Kultura Sailaren helburuetan da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia gainerako diputazio, udal erakunde eta hainbat enpresatan aurkeztea, Planari ahalik eta atxekimendurik handiena biltzeko asmotan.



EUSKALDUNION EGUNKARIA

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1 • Prentsa on-line

2 • Karmele Esnal, Anton Abbadia saria 1999
• Laburrak:
Kirola Euskaraz
Haur-jolasen kantuak
Ataño (1913-1999)

3 • Bidegileak

4 • Office de la Langue (Bretainia)
• Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

EUSKALDUNON EGUNKARIA ETA ARGIA Euskarazko prentsa, on-line

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian adierazten den bezala eta komunikabideek egungo gizartearen duten garrantzi handiaren ondorioz, prentsa idatzia lehen mailako arlo estrategikoa da hizkuntzaren normalizaziorako. Horri dagokionez, euskarazko prentsaren arteko elkarlana bultzatu beharra dago, diren baliabideei harik eta etekin handiena atera, kalitatea hobetu, eta produktu berriak eskaintzeko.

Biziberritzeko Planean, gainera, informazioaren teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzeko beharra ere azpimarratzen da. Horiek horrela, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak 150 milioi pezeta bideratu ditu aurten, garapen informatikoa bultzatzeko. Diru horretaz baliatuz, era berean, hiru proiektu berri abiaraziko dira: Euskaltzaindiaren informatizazioa, HABENET, eta "Euskal Prentsa on-line".

Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren ekimenen barruan da euskarazko prentsa idatzia laguntzeko deialdia egitea urtero. Eta Euskaldunon Egunkaria eta Argia astekaria dira euskararen lurraldeetan hedapen handieneko bi agerkariak. Azpimarragarri da euskara eta euskal kulturari egiten dioten jarraipena. Euskararen presentzia on-line ere laguntzeko, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Euskaldunon Egunkariaren eta Argiaren proiektuak sustatzea erabaki du. Bi agerkarien asmoak ere guztiz berritzaile dira eta eredu

izan litezke beste ekimen batzuetarako: herri aldizkariak sarean jartzeko, adibidez.

Honakoak dira proiektuaren helburuak:

- Euskaldunon Egunkaria eta Argia astekaria beren eduki guztiak on-line ipintzea, teknologia berrien alorrean egin beharreko urrats estrategikoa baita, ate berriak zabalduko dituena.
- Euskarazko prentsa digitala sortzea eta garatzea.
- Internet bidez mundu osoan barreiatuta dauden euskaldunei aukera eta zerbitzu hobea eta berria eskaintzea.
- Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea euskarri berriekin gero eta trebatuagoa dagoen belaunaldi berriengana hurbilduz.
- Euskal Herrian sortzen den komunikazioak munduan garrantzia izan dezan bultzatzea. Garai berrietako tresna berriek gurea bezalako kultura ttiki bati handien artean lehiazteko aukera handiagoak eskaintzen baitizkiote.

Proiektua gara dadin, Euskaldunon Egunkariak 35 milioi pezeta jaso zituen iaz, eta Argiak, berriz, 10 milioi. Aurreikusita dagoenez, proiektua zabaltu egingo da aurten bertan herri aldizkarietara, informazioaren teknologia munduan euskararen presentzia ziurtatzeko.



laburrak

KIROLA EUSKARAZ



Kirol arloan kaleratu diren euskarazko materialak biltzen dituen katalogoa osatu eta argitaratu du Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak. Bertan dira Kirola Euskaraz programaren babesean sortu diren materialak, bai eta programa horretatik kanpo egin direnak ere. Materialak erosteko edo katalogoa jasotzeko, jo Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzura

(943795587) edo Anoetako Kirol Etxera (943458357).

HAUR-JOLASEN KANTUAK



Debako udalak eta Zuhatza elkarteak "Haur-jolasen kantuak" argitaratu dute, haur-jolasekin batera egin ohi diren kanta bilduma. Egileek hirutan sailkatu dituzte kantu-jolasak, 0-3, 4-6 eta 7-8 urte bitarteko haurrei zuzenduz kantu sortak. Jolas bakoitzak, gainera, kantuen hitzak, jolasa egiteko modua eta euren gainean egin izan diren bideoen berri ere badakar.

ATAÑO (1913-2000)



Sebastian Zapirain "Ataño" hil da, euskarazko herri-literaturak izan duen lumarik zorrotzenetakoa. Errenterian jaio zen Ataño, 1913an, eta Hondarribiko kaputxinoen komentuan eman zuen bizimodua, bertan hil arte joan den urtarilaren hasieran. Hamalau liburu baino gehiago idatzi zituen *Txantxangorri kantaria* idazlan ezagunaren egileak, eta beste hainbat utzi argitaratze bidean. Tartean, laster kaleratuko den *Gorrotoa ondareztat* lana.

KARMELE ESNAL

Anton Abbadia saria 1999



ARGIA - Alberto Elsoegi

Gipuzkoako Diputazioaren Anton Abbadia saria jaso du Carmele Esnalek Francoren diktadura garaian euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lan handiagatik.

Karmele Esnal Orion jaio zen 1932an. Gasteizen eta Donostian egin zituen ikasketak eta Elbira Zipitriak Donostiako Parte Zaharrean zuen ikastolan egin zituen praktikak 1953an. Bi urte geroago bere ikastola ireki zuen Carmele Esnalek, Pedro Egaña kaleko 2 zenbakian, zazpi ikasle zituela. Ikasle kopurua hazi eta hazi egin zen, eta 1966an Santo Tomas Lizeora aldatu zen Carmele Esnalen ikastola. Harrezkero bertan jardun zuen irakasle Carmelek, harik eta orain bi urte erretiratu zen arte. Egun, bere ikasleentzako batzuk arrunt ezagunak dira euskal kulturaren giroan: UPV-EHUko irakasle eta euskaltzain Miren Azkarate, eta Ramon Agirre, Aitzpea Goenaga, Ane Gabarain edo Iñaki Beraetxe aktore-aktoreak dira adibide.

Elbira Zipitria ez ezik, euskararen eta euskal kulturaren alde urte zailenetan lan anitz egindako hainbat lagun ere ezagutu zituen Carmele Esnalek. Nemesio Etxaniz, esaterako, Karmeleren ikastolara joan ohi zen haurrei kantatzen erakustera. Jarrai antzerki taldean parte hartu zuen aldetik, Iñaki Beobide, Ramon Saizarbitoria, Xabier Lete, Arantxa Gurmendi eta beste asko izan zituen lagun. Zeruko Argia aldizkarian ere idatzi zuen, "Maribeltz" ezizenaz sinatzen zituela bere lanak. Euskarazko lehen komiki "Panpin"-en ere lan egin zuen, eta Arrate Irratian ere lagundu zuen.

Hurretik bizi izan zuen euskararen batasuna eta lehenetarikoa izan zen Euskaltzaindiaren erabaki eta gomendioen alde agertzen.

Erretiraturik bizi den arren ez du irakaskuntza zeharo baztertu. Oraindik ere euskaraz erakusten jarduten du bi egunez, eta Donostiako Bagera elkarteari ere laguntzen dio.

Ohorezko euskaltzaina da eta Euskal Idazleen Elkartearen omena ere jaso du 1999ko Anton Abbadia saridunak.



ARGIA - Alberto Elsoegi

EUSKARAREN BIDEGILEAK

Lau karpeta berri aurkeztu dituzte bildumaren barruan



Lau karpeta berri aurkeztu dituzte Bidegileak bildumaren barruan. 14., 15, 16 eta 17. sortak ditugu eta Piarres Larzabal, Toribio Alzaga, Antonio Maria Labayen eta Augustin Zubikarai aztertu dira lehen karpetan. 15. karpeta-ko protagonistak, berriz, Federico Krutwig, Alfonso Irigoien, Errose Bustintza eta Aingeru Irigarai dira. 16.ean aztertzen diren autoreak dira: Ixaka Lopez Mendizabal, Patxi Unzurrunzaga, Bernardo Estornes Lasa eta Bittor Gaubeka, eta argitara eman den azken sorta osatzen dutenak: Mixel Labeguerie, Toribio Etxebarría, Gorgorio Rentería eta Telesforo Monzon.

Antzerkigintzaren bidegileak

Piarres Larzabal, Toribio Alzaga, Antonio Maria Labaien eta Augustin Zubikarai antzerkigintzaren garapenari guztiz loturik jardun zuten beren ibilian, nahiz eta aro eta lurralde ezberdinetan ari izan nor bere aldetik.

Piarres Larzabal (Azkaine, 1915-Zokoa, 1988), filosofia eta teologia ikasi arren gazterik hasi zen antzerkigintzan. 1934an argitaratu zuen *Irri eta Nigar*, bere lehen lana, *Gure Herria* aldizkarian. Hurren etorri ziren *Kontrabandistak*, *Lau donadoak*, *Xirixti-mirixti...* denak ere lan komikoak. Geroago, *Etxahun*, *Bordaxuri*, *Herriko bozak*, *Hila espos*, *Hiru ziren*, *Mugari tiro...* heldu ziren, lan didaktiko eta gogoeta eragitea helburu zutenak. Kalitate handieneko lanak 1960az gero idatzi zituen Piarres Larzabalek: *Orreaga*, *Sarako lorea*, *Ibañeta*, eta, orenen gainetik, *Matalas*. Euskaltzain izendatu zuten 1963an.

Toribio Alzaga (Donostia, 1861-1941), Ziburun hartu zuen babes Bigarren Gerra Karlistaren ondoren, eta bertan idatzi zuen lehen antzerkia: *Aterako gera!* (1888). Marcelino Soroaren *Iriyarena* lanean parte hartu zuen eta, harrezkero, antzerkigintza giroan eman zuen bizia. Hainbat eta hainbat lan idatzi zituen eta horien artean dira, adibidez, *Andre*

Joxepa Tronpeta, *Zanpantzar*, *Txibiribiri*, *Etxietan*, *Biozberak*, *Burruntziya...* Azken hauxe dugu, beharbada, Toribio Alzagaren lanik gorena. "Euskal Izkerka ta Iztunde Ikastola"-ko zuzendari izendatu zuten 1915ean eta herri anitzetan erakutsi zituzten beren lanak. Espainiako Gerra Zibila heldu zen, ordea, eta errotik etenarazi zuen mugimendua. 1953an piztu zen berriro, Toribio Alzagaren ikasle bat lagun: Maria Dolores Aguirre. Honek aurrekoaren lanari jarraitu zuen.

Antonio Maria Labayen (Tolosa, 1898-1994), euskarazko antzerkigintzaren bidegilerik nagusienetakoa ez ezik, euskal kulturaren eragile handi ere izan dugu. Antzerki aldizkaria sortu zuen 1932an eta Ixaka Lopez Mendizabal, Toribio Alzaga, Xabier Lizardi, Abelino Barriola, Tene Mujika eta beste hainbat izan zituen lankide. Garaiko aldizkarietan ere eman zituen argitara bere lanak: *Euskal Esnalea*, *Euskal Erriaren Alde*, *Euzko-Gogoa*, *Munibe*, *Eusko Jakintza*, *Karmel*, *Argia*, *Zeruko Argia*, *Gure herria*, *Goiz-Argi...* Bere lanik onenak izendatzekotan, honakoak aipatu behar: *Mateo Txistu*, *Euskal Eguna*, *Jostuna*, *Jokua ez da errenta*, eta *Petrikillo*. 1977an, La Gran Enciclopedia Vascak hiru liburukitan bildu zituen bere lan denak: *Teatro osoa euskeraz*. Euskaltzain izan zen.

Augustin Zubikarai (Ondarroa, 1914), lan oparoa idatzia da, 50 liburu baino gehiago argitaratu baititu, hainbat jenerotan: nobelak eta antzerkianak, lan historikoak, biografikoak zein autobiografikoak, herri jakintzakoak eta abar. Bere artikuluak ere 30 aldizkaritan baino gehiagotan sakabanaturik dira. Bere nobeletan ditugu, adibidez, *Anton Guzurretxe*, *Laiñoak Mundakan*, *Ixtastarrak...* Baina, oroz gain, antzerkigintzan gailendu da Zubikarai. 19 urte betetzerako argitaraturik zuen beren lehen lana: *Aberrijagaz bizi* (1933). Gerra ostean, eta 1957az gero batik bat, berrekin zion antzerkigintzari. Bere lanik ezagunenetan ditugu, askoren artean, *Seaska inguruan*, *Iru alaba*, *Bizi garratza*, *Ni naz kapital piloto*, *Ijitoak eta ni...*